

Helburua

Euskara ikasten ari diren ikasleek ahozko euskara praktikatzea.

Nola eman izena

Izena emateko epea: **urtarrilaren 12tik 26ra**. Eska ezazu fitxa barcelona@euskaletxea.cat helbidean, fitxa bete eta e-postaz bidali helbide berberera edo Euskal Etxeko bulegoan utzi.

Izen-emate fitxan, oso garrantzitsua da mintza-saioa egiteko ahalik eta ordu posible gehien jartzea. Oso jende gutxi gara eta horregatik **oso-oso zaila** da zuk nahiago duzun ordutegi bera nahi duen beste pertsona bat aurkitzea (duela hiru urte bospasei ikasle mintzakiderik gabe geratu ziren arazo honengatik).

Gutxienez A2 maila izan behar duzu (3. ikastaroa egiten edo goragoko maila baten ikasten).

Funtzionamendua

Hamar saio egiteko konpromisoa eskatzen dugu, otsailean hasi eta apiril ingurura arte. Ikasturtea amaitu arte elkartzen jarraitzea, bikotearen esku dago.

Egokiena astean ordubeteko saioa egitea dela uste dugu: hizkuntza trukea bada (euskara-katalana...), bikotekidearekin adostu beharko duzu nola egin.

Mintzalagun bikoteak osatzerakoan eskatutako bikotekideen ezaugarriak ahalik eta gehien errespetatzen saiatuko gara, baina kontuan izan behar duzue horretarako zailtasun handiak egon litezkeela. Mintzalaguntzaile nahikorik ez badago, hirukote edo laukoteak osatuko ditugu (mintzalaguntzaile bat eta bi/hiru mintzalagun).

Lehen saioa (elkar ezagutzeko) Euskal Etxean egitea eskatzen dugu. Geu jarriko gara harremanetan zuekin lehen saioaren data, ordua eta lekua (Bartzelonatik kanpo bada) zehazteko. Euskal Etxeak jarri duen hitzorduan etorri ezin bazara, abisatu lehenbailehen goiko helbide elektronikoan, horrela Euskal Etxeak zure bikotekidearekin harremanetan jarriko zaitu zeuen artean eguna eta ordua jartzeko.

Bikoteak osatzerakoan, beste euskara ikasleen aurretik, Euskal Etxeko ikasleek izango dute lehentasuna.

